



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



GAZTEAK

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2019-11-18	19:00	20:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Haizea Saez de Egilaz, Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak: 3	Euskaraz: 3		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 2		Gizonezkoak: 1	
	<18 urte: 0	18-25 urte: 2	26-30 urte: 0	>30 urte: 0

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	<p>Gazte batzarren inguruko laburpentxo bat egin da. Aurreko urteetan ateratako lehentasunak: feminismoa, aisialdia, etxebizitza, enplegua. Aipatu da feminismo saila sortu dela udaletxean eta hainbat lanketa martxan daudela. Aisialdiari eta kultur eskaintzari dagokionez Landetxeko eraikinarekin hobekuntzak egitea proposatzen dugula, etxebizitzaren inguruan bulegoa mantentzen dugula eta Urkabe baitako proiektua dugula esku artean, eta enpleguari dagokionez proposamen bat dakarkigula.</p>
Aurrekontuak eta inbertsio nagusiak	<p>Aurrekontuen inguruan inbertsio nagusiak aipatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none">-Landetxeko eraikina: laster obrak hasiko dira. Proiektua bera ezagutzen denez, xehetasunak ez dira azaldu. Zalantza sortu da obrak iraun bitartean gaztetxea ezin izango delako erabili. Obren inguruko informazioa dagoenean lehenbailehen gaztetxeko erabiltzaileei abisatzeko konpromezua hartu da. Gauzak antolatzeko beste lekurik ba ote dagoen ere galdetu da, baina lokal egokirik ez dagoela erantzun da. Kultur aretoari dagokionez, edukiko duen erabileraren inguruan hitz egin da. Udalak asmoa du kultur eragileen inguruko mahai bat osatzeko. Gaur egun antolatzen diren gauzak agenda edo egutegi batean kokatu beharko dira,



2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>eragile guztiek antolatu nahi dituzten gauzak koordinatzeko, baita sor daitezkeen ideiak bideratzeko ere.</p> <p>-Urkabe baitako etxebizitzak: bertan alokairu sozialeko etxebizitzak eta dotazionalak egingo dira. Bigarren hauek apartamentu estiloko etxebizitzak lirateke, ekipamendu publikoa direnak eta epe baterako alokairua direnak. Etxe hauek gazteei emantzipatzeko etxebizitza egokiak lirateke, alokairu merkean gurasoen etxetik ateratzeko. Etxebizitza bulegoak ere zabalik jarraitzen duela ere azpimarratu da.</p>
2019ko gazte aurrekontuak	<p>Enplegurako formakuntzara bideratzea erabaki zen. Batzarrean egitaraua onartu zen. Honako saioak antolatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikasketak bukatu eta gero zer? Enplegu tailerra- Ekintzaile izateko zer egin behar da?- Nola egin Curriculum Vitae egoki- Nola prestatu lan elkarrizketa <p>Ikastaroak antolatzeko ostiral arratsaldea eta larunbata goiza direla egokienak aipatu zen. Gazteria arlotik bideratuko bada ere, adinaren muga ez jartzea aipatu da.</p> <p>Formatzaileekin egutegia lotzean komunikazio kanpaina egingo da.</p> <p>Aipatzen da oso interesgarriak direla tailerrak, baina zalantza sortzen da gazteak animatuko ote diren.</p>
2020ko aurrekontuetako gazte aurrekontuak	<p>5.000€ zertara bideratu erabakitzeko garaian gaztetxeko azpiegiturak hobetzeko ekarpenak egin dira. Batez ere, lehenik egin beharreko bezala sarrerako atea eta larrialdi atea berriak jartzea izango litzateke. Bestalde, barruko ateetako serralak ere giltzarekin izatea eskatu da, gaur egun kandaduaekin daude. Bilera geletan itoizura dagoela ere aipatu da. Bestalde, oso hotza da eta berokuntza sistema aztertzea eskatu da. Eta Udalak lurra garbitzeko garbigailu profesional bat erostea eta behar dutenean uztea ere bai.</p>
Dirulaguntzak	<p>Aipatu da gazteriko dirulaguntzak bideratzeko formula egokiena bideratuko dugula. Gaur egun Oiartzun Guk-ek soilik antolatzen ditu gazteentzako ekintzak, eta beraz, agian hitzarmena egin beharko dugu.</p>

BALORAZIOA: laz eta aurten hiruna pertsona gerturatu dira. Tristuraz hartzen da Udalak gazteekin gaztetxean bilera deitu eta jende gutxi azaltzea.